

HERRIKO ELKARTE GASTRONOMIKOEI ZABORREN-TASAN HOBARIA APLIKATZEKO MOZIOA

COVID 19ak herriko hainbat sektoreri kalte ekonomikoak sortu dizkie. Horien artean ditugu herriko elkarte gastronomikoak. Elkarte gastronomiko horiek, haien eguneroko jardunaz gain, urtean zehar, herrian egiten diren ekintza, ekitaldi eta programetan parte hartzen dute bolondreski, Lasarte-Oria herri bizia eginez.

Bizi dugun osasun-krisia dela eta, ordea, 2020ko martxoaren 14tik maiatzaren 25era, eta 2020ko azaroaren 5etik gaur egun arte, espazio hauek itxita egon dira eta ezin izan dute haien jarduna modu arruntean burutu. Hori dela eta, ez dute zaborrik sortu, baina bai zaborraren-tasa ordaindu.

COVID 19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presazko neurriei buruzko abenduaren 1eko, 11/2020 Foru dekretu-arauak, 18.artikuluak, aukera ematen die 2021ean tokiko entitateei tasen hobariak onartu ahal izateko, osasun-krisiak eragindako kolektiboei aplikatu ahal izateko.

Hori horrela izanik, Lasarte-Oria EH Bildu Udal Taldeak honako hau onartzea eskatzen dio Udal Batzarrari:

1. Udal Gobernuak COVID 19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presazko neurriei buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru dekretu-arauak 18.artikuluak jasotakoari jarraituz, eta Lasarte-Oriako elkarte gastronomikoak osasun-krisiak eragindako kolektiboa izanik, herriko elkarte gastronomikoei 2021eko zaborraren-tasan %50eko hobaria ezarri ahal izateko prozedura martxan jartzea.
2. Udal Batzarrak pandemiari aurre egiteko neurriek elkarte gastronomikoengan, 2021 urtean zehar, izango duten eragina kontuan izatea 2022ko tasak ezartzerako momentuan.

Lasarte-Oria EH Bildu

